



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Larunbata
2009-06-20

VII. URTEA 1.733. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Raimundo Amador eta Ñaco Goñik abiaraziko dute Tolosandblues

TOLOSA Hilaren 25ean hasiko da eta 27an amaituko da, Otis Grand «bluesaren enbaxadorearen» emanaldiarekin

URTEURRENA Blues jaialdiak 5 urte beteko ditu aurten eta «herrian finkatzea lortu» duela nabarmendu dute 3



2003. urtean, kale antzerki batean labadero garai bateko bizia gorpuztu zuten. HITZA

Emeterio Arreseko labaderoa suntsitu du kolektorearen lanak

IBARRA XVII. mendekoa da; Aranzadi zientzia elkartearen 2004ko txostenean etnografia-ondare honen balioa nabarmendu zuten 4

Berrobiko bi batel estreinako ariko dira sanjoanetan

BERROBI Bihar jokatu dute Oria ibaian sailkapen estropada eta hilaren 24an, finala 7



Herenegun egin zuen plataformak agerraldia. I. TERRADILLOS

Gerontologiko berria hobetzeko aukera ikusten du Zahartzaro Duinak

TOLOSA Herritarrei proposamenak aurkezteko hilaren 27an batzar informatiboa egingo du 6



Aurreko astean proposatutako irteerako zati bat berriro pasako eta ondoren beste hiru herri ezagutzeko aukera izango da oraingoan; nahiko zelaia da eta 26,5 kilometroko luzera du.

Asteasu- Larraul- Zizurkil

JOXEMI SAIZAR

Bigarren ibilaldiak Tolosaldea bizikletan ezagutzeko Asteasu, Larraul eta Zizurkilera eramango gaitu. Aurreko astean proposatutako irteerako zati bat berriro pasako dugu, baina beste hiru herri horiek ezagutzeko aukera emango digu. Hau ere nahiko zelaia da, bi tontor izanik bakarrak: Larraul (239 m) eta Zizurkil Goia (113 m). Tolosa bertatik abiatuz, Anoetara joan (GI-3650 errepedea) eta ibaiaren eta trenbidearen arteko bidexka asfaltatutik joango gara Villabonara, aurreko astean bezalaxe.

Zubimuraino jarraitu ibaiaren ezkerretatik eta Elbarrena auzoan dagoen biribilunean Asteasura doan errepedea (GI-2631) hartu beharko da orduan. Errepide laua da, baina pixkanaka, ia konturatu gabe gorantz dihoa. Zirkulazio pixka bat ere izaten da errepide honetan, inguruan dauden industrialdeengatik batetik eta Aiara dihoan errepedea delako, bestetik.

Asteasu ikusi eta atzera buelta
Asteasura iritsi eta plaza, udaltxea, Usaberri frontoi berria, Bernardo Atxagaren omenezko Obaba kalea, Tranpazulo eskultura eta Kultur Etxea ikus daitezke bertan. Bestalde, San Pedro eliza, Santa Kruz basiliza eta eskolak ikusteko Elizmendia auzora igo behar da, 50

metroko desnibela gaindituz. Sari bezala, elizan organo-jotzailea entseatzentokatu daiteke, guri gertatu bezala.

Asteasu ikusi ondoren, atzera bueltatu eta berehala eskuinetara aterako da Larraulera joaten errepedea (GI-3481). Bi kilometro dauka eta igoera da, baina ez oso gogorra (140 metroko desnibela) eta ia trafikorik gabe.

Udaltxea, San Esteban eliza, museo etnografikoa eta Murgilazpi frontoia daude kaxkoan, eta pixka bat aparteago Antton Amonarritz kultur gunea. Jaitsiera lasai hartu eta Asteasu ingurura itzuliko


Ibilbidean bi tontor izango dira: Larraul (239 metro) eta Zizurkil Goia (113 metro)

gara, berriro ere Villabonara doan errepedea hartuz. Bide erdian edo ezkerretara hartuko dugu Zizurkil

Goira joateko. GI 3281 errepedea hartu beharko dugu, kilometro batean desnibel txikia igoz (40 metro).

Zizurkilgo udaltxea, San Millan eliza eta aste honetan teiltatu berria jartzen ari diren Intxaurren frontoia ikus ditzakegu herriaren kaxkoan.

Bide beretik itzuli beharrean, aurrera jarraitu eta Villabonara jaitsi gaitzake, San Miguel ermita pasatuz eta 15. industrigunera iritsiz. Handik berriz ibaiaren ondoko bidetik Anoetara eta Tolosara itzuliko gara.



Bigarren ibilbidean Asteasu, Larraul eta Zizurkil igaroko ditugu; irudian, Larraulgo San Esteban eliza. JOXEMI SAIZAR

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Atzo aurkeztu zuten Fnac-en Tolosandblues; ekitaldian izan ziren Iñigo Martín antolatzailea eta Andoni Iturzaeta zinegotzia. E. EZBEIZA

Raimundo Amador eta Ñaco Goñi sanjoanen eta Tolosandbluesen zubi

Kultura » Hilaren 25ean bi musikari hauen kontzertuarekin hasiko da jaialdia, eta hilaren 27ra arte luzatuko da.

ERREDAKZIOA

«Tolosandbluseko orain arteko egitarau biribilena eta erakargarriena» aurkeztu zuten atzo Fnac-en. Bosgarren aldiz, hemen baita tolosar blues eta jazz zaleen urteroko hitzordua. San Joan jaiei hartuko die lekukoa hilaren 25ean, eta 27ra arte luzatuko da.

Krisi garaia baldin bada ere, eta kultura saileko aurtengo aurrekontua murriztu bada ere, puntako musikariak etorriko dira Tolosara oraingo honetan ere. Andoni

Iturzaeta zinegotziak azaldu bezala, «oraingo honetan esfortzu berezi bat egin dugu Udalekoek eta kalitatezko egitarau bat osatzea lortu dugun». Raimundo Amador eta Ñaco Goñik abiaraziko dute jaialdia, eta Stay Blues izango da eszenatoki gainera igoko den azken artista. Tarteetan, Donostiako Musika Eskolako Big Banda, Mingo & The Blues Intruders eta Otis Grand entzuteko aukera izango da.

Bost urte betetzen ditu aurtengo Tolosandblues-ek, eta antolatzaileen esanetan, nabaria da Tolosan dagoeneko finkatuta dagoen ekimen bat dela. Taldeak berak berriak baldin badira ere bi dira aurtengo aldaketa nabarmenenak. Hasteko, estreinakoz, emandalietako bat Fronton kafetegiarekin kan-

paldeko terrazan izango da. Horrela, kaletik ere entzun ahal izango dira Big-Band-ekoen doinuak. Bestetik, Plaza Berrian bi kontzertu izango dira. Orain arte, bakarra izaten zen, baina aurtengoa beste bat ere jartzea erabaki dute. Aipatzekoa da ere, emandaldi kopurua handitu egin dela, iaz hiru kontzertu izan ziren, eta aurtengoz bost izango dira.

Iturzaeta eskertu nahi izan die ere Iñigo Martín, Fronton Kafetegiko Juantxo Izagirre eta Ezpeleta elkartekoei, sostengua emateagatik proiektuari.

Raimundo Amador, bakarkako ibilbidean

3.000 Viviendas izeneko auzokoa da Raimundo Amador, Sevillako gune esanguratsukoa. Rafael eta

Raimundo Amador anaiek osatu zuten hastapenetan Pata Negra, soula eta rocka flamenkoarekin uztartzen duen taldea. Sevillakoek (Espainia) Veneno sortu zuten lehenago, 70ko hamarkadan, Kiko Venenorekin batera. Pata Negra-ekin lau disko kaleratu ostean, Raimundok bakarkako biderei ekin zion.

Amadorrek bere gitarrak hitz egitea lortzen du. Flamenkoa egiten hasi bazen ere, blues doinuak osogustuko ditu. Kalean ikasizuen flamenkoa eta rock nahiz blueseko musikari handiak ezagutu zituen giro berean. Soinu hauetara hurbiltzen saiatu da beti, baina flamenkoa alde batera utzi gabe. Entzuten dituen doinuak barneratzeko duen gaitasun handiagatik, mestizaiaren eredu bihurtu da. Es-

» TOLOSANDBLUES

Ekainak 25, osteguna

■ **Raimundo Amador eta Ñaco Goñi.** 22:30ean izango da kontzertua Plaza Berrian.

Ekainak 26, ostirala

■ **Donostiako musika eskolako Big Band-a.** Estreinakoz, Fronton kafetegiko terrazan izango da emanaldia, 20:00etatik aurrera.
■ **Mingo & The Blues Intruders.** 23:30ean hasiko da saioa eta Fronton kafetegian izango da hau.

Ekainak 27, larunbata

■ **Otis Grand.** 22:30ean izango da kontzertua, Plaza Berrian.
■ **Stay Blues.** Fronton kafetegian izango da emanaldia, eta 00:00etan hasiko da.

painiko musikaren eredu handienetako bat da, baita garrantzitsuenetakoa ere.

Raimundorekin batera, eszenatoki gainean bizitza guztia bluesari eskaini dion musikaria izango da, Ñaco Goñi hain zuzen ere. Euskal Herrian hainbat aldiz jo du bertako musikariekin. Espainiako aho-soinu jotzaile onenetako bat da.

Aurtengo izar handienetakoa

Jaialdiko azken egunean Otis Grand entzuteko aukera izango da. «Benetako bluesaren enbaxadore» bezala deskribatzen dute batzuek. Gitarra jotzaile honek 13 urte zituenetik jotzen du blues gitarrarekin.

Blusean buru-belarri aritzen da Grand, eta deitzen dioten agertoki guztietara joaten da. Musikari anglo-libanoar hau ez da mastilean behatzak astintzen dituen horietakoa, antz handiagoa du B. B. Kingen jotzeko modu ekonomikoarekin. Kingek bere jotzeko moduaren ondorengo bezala izendatu zuen. Barru-barruan ditu swing eta boogiaren arima, ezin hobeto ezagutzen du estilo liburu, eta taldeko zuzendari bikaina da.

Oso ospetsuak dira Otis Grandek eskaintzen dituen kontzertuak, eta etengabe ibiltzen da bitan. 25 urte baino gehiagoko ibilbidea egin du musikari. Grandek paper garrantzitsua bete du Britainia Handiko blues modernoaren bilakaeran.



Raimundo Amador eta Ñaco Goñi Tolosandbluseko eszenatoki gainera igoko dira; Otis Grand gitarra jotzaile handia ere Tolosan izango da. HITZA

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633



2003ko jaietan eginiko kale antzerkian labaderoen garai bateko biziaren gorpuztu zuten. HITZA



Hauxe da kolektorearen obrak direla eta XVII. mendeko labaderoen oraingo itxura. R. CALVO

Emeterio Arreseko XVII. mendeko labaderoa suntsitu dute kolektorearen lanak egiterakoan

Ibarra » Aranzadiren 2004ko txostenean etnografia-ondare honen balio «paregabea» nabarmendu zuten.

REBEKA CALVO

Ibarran, Elduain ibaian, orain aste batzuk hasitako kolektorearen obrak egiterakoan Emeterio Arrese parkearen parean zegoen labaderoa suntsitu dute. Bertan lanean ari diren langileen buruak esandakoaren arabera, ez zekiten bertan inongo kultur-ondaririk zegoenik.

Aipatu behar da, era berean, Udaletxeko Kultura Sailari ez diotela kolektorearen obraren egitasmoaren inguruko informaziorik zabaldu, ezta labaderoaren suntsiketaren berririk eman ere.

Labaderoaren eraikitze data zehaztu ezin badaiteke ere, Aranzadi Zientzia Elkartek 2004. urtean, herriko Arau subsidiario berriak egiteko garraia zela probestuz, Ibarako Udalarentzat prestatutako txostenean, XVII. mende inguruan kokatu zuten. Izan ere, inon ez da azaltzen noiz eta nola egin zen labaderoa.

Urte zehatza ezagutzen ez bada ere Aranzadik mota honetako elementu herrikoiek herritarren erabilerarako izaten direla eta era berean, herriaren erdian kokatua zegoela ere nabarmendu zuten. Honen haritik, herrigunearen jatorrizko labaderoa zela ere esan zuten Aranzadik.

Herrigunean kokatua

Egitura, aipatu bezala, Emeterio Arrese parkearen eta iturriaren parean zegoen, Elduain ibaian, he-

rriaren erdigunean, beraz. Bi harritzko ilaraz osatuta zegoen, hasiera batean alde batetik bestera zeharkatzen zuten ibaia, baina 2004. urtean, Aranzadik txostena egin zueneko urtean, jada ez zegoen egitura osoa. Ekialdeko ilara lauki zuzen formako harlauez osatuta zegoen eta ibaian sartuta zeuden, garbitu ahal izateko inklinazioa lortzeko. Handik metro gutxitara, mendebalderuntz, tamaina erdiko harriz osatutako beste ilara bat zegoen.

2003. urteko kale antzerkia

Ibartar bat baino gehiagok gogoan izango du oraindik 2003. urteko herriko jaietan Hauspibarra Kultur Elkartek, Udaletxearekin ba-

tera, labaderoa balioztatzeko bertan egindako antzerkia. Urtero egiten antolatzen du Hauspibarra garai bateko Ibarra gogora ekartzeko kale antzerkia.

2004. urteko txostena

Aranzadik 2004. urtean prestatutako txostenean ageri denez, labaderoa, herriko beste hainbat elementurekin batera, babestu beharreko kultur-ondarearen barruan, elementu etnografiko bezala katalogatu zuten, baina HITZAK jakin ahal izan duenez Udalak ez zuten kontutan izan.

Honen adibide dira, herriko plazan bertan zegoen Txontxo eta Donperu baserriak, txostenean ere aipatzen zirenak. Baserriak

2007. urteko urrian bota zituzten etxeak egiteko, hain zuzen.

Aipatu baserriak XVII. mendekoak zirenak eta Txontxoren kasuan garai hartako eraikitzen ezauga-

2007. urtean Txontxo eta Donperu baserriak eta Zubiaurreko dolarea ere bota zituzten

rri tipikoak zituen. Aranzadik zaharberitze lanak egin zituen bertan eta ondorioz, agerian utzi zituzten egurrez eta harlangaitzez osatutako egitura. Zubiaurreko XIX. mendeko dolarea ere bota zuten 2007an.

Ibarrako Udalak bandalismo ekintzekin amaitzeko eskatu du

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak pasa berri diren Gazte Festetan zehar gertatu diren bandalismo ekintzekin amaitzeko «gizarte-erantzukizunari dei» egin nahi izan dio.

«Aurten, suntsiketak egin dituzte Euskal Herria kalean zehar kokatuta dauden hainbat jardineretan, eta baita San Inazio auzoko haur parkean», nabarmendu du

Udalakohar batean. Horiek horrela, Ibarrako Udalak «onartezintzat» jo ditu ekintza hauek eta «desagertzen ez badira neurri zigortzaileak hartuz derrigorputa» egongo dela ohartarazi du. «Erabaki hauek alde batera utziz, ibartar guztien erantzukizunari dei egiten diegu, ekintzak hauetarikoren bat ikusten badute, denuntziatu dezaten», gaineratu dute. Uda-

lak «era berezian» gazteei zuzendu zaie «hiri-altzariak errespetatu ditzaten, hauek ipini eta konponetzea udalerriko bizilagun guztiak ordaintzen baitute».

«Datozen Gazte Festen edizioetan egoera hau errepikatu ez dadin eta festa giroa gizalegez, tolerantziar, errespetuz eta zintotasunez bizi dadin espero dugu», esan du bukatzeko Udalak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gazumeko parke eolikoaren proiektuak ez du aurrera egingo oraingoz

Ingurumena » Izapide administratiboak bertan behera uzteko eskatu dio Legebiltzarrak Gobernuari.

ERREDAKZIOA

Gazumeko parke eolikoko proiektua gelditu egin dute oraingoz, Euskal Autonomia Erkidegoko beste zortzi proiektuekin batera. Eusko Legebiltzarrak aho batez Gasteizko Gobernuari tramite administratiboak bertan behera uzteko eskatu zuen herenegun.

Hain zuzen ere, Aralar alderdiaren ekimenez, transakzio zuzen-keta bat sinatu zuten legebiltzarkideek; halaber, aho batez Gasteizko Gobernuari urte amaierarako plan bat osa dezala eskatu zioten, energia eolikoaren sektorekako lurralde plana, hain zuzen ere.

Hala, erabaki honek eragin zuzena du Gazumeko parke eolikoaren proiektuan, baita Arabako eta Bizkaiko zortzi parke eolikori.

Eusko Legebiltzarrak sinatu duen akordioan parke hauen erakuntzak gelditzea eskatzen du, «giza eta erakundeen arteko adostasunaren ondorio gisa» balio dezan, martxan dauden plan horiekiko. Halaber, «azken urteetan onarturiko ingurumenarekiko araudiaren aplikazioa» eskatzen du. Hauen baitan, ingurumenaren gaineko eragina aipatu du legebiltzarrak.

Ido honetan, Eusko Legebiltzarrak informazioa ere exijitu dio gobernuari; «hilabete hau amaitu baino lehen energia eolikoaren sektorekako lurralde plana landu

Erabakiak eragin zuzena du Euskal Autonomia Erkidegoko beste zortzi proiektutan

eta aztertze sortu den taldearen ondorioen berri» jakin nahi dute. Irailaren bukaerarako, berriz, hasitapenen eta zailtasunen berri ere jakin nahi dute, adostasun batera heldu aldera.

Eskualdeko eragile ugari aurka azaldu dira

Parke eolikoaren proiektuak zehazten zuzenez, 15 aerosorgailu aurreikusten zituzten. Aerosorgailuen altura 71 metrokoa izango litzateke eta errotorearen diametroa 58 metrokoa.

Parkearen potentzia guztira 12,75 MWkoa izango litzateke eta aurrekontua, berriz, 20,4 milioi eurokoa. Eskualdean hainbat udal eta elkarte aurka azaldu ziren, eta alegazioak jarri zituzten, «Gazumeko parke eolikoa egin ez zedin».



Artea hormetara zabaltzen

TOLOSA » Gero eta ohikoago bihurtzen ari dira graffitiak Tolosako hormetan. Berazubi zelaiaren kanpoaldea, Ori ibaiaren ibiltokiaren hormetan, San Esteban aldera doan pasabideetan edota zenez-plazan, besteak beste. Eta duela egun batzuetatik hona Geltoki inguruan ere ikus daitezke pintura berriak. Kaleko artista hauek etengabe berritzen dituzte euren lanak, artea etengabe berritzen delako. Eskertzekoa, dudarik gabe, artea kalera atera nahi izatea... N.LATABURU

Euskara eta Tolosaldea, blog batean bilduta

Euskara » Euskararekin arduratuta daudenei tokia eskaini nahi die blogak; kanpainan zehar kartelak jarri dituzte semaforoetan.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko euskaltzale batzuk euskara eta Tolosaldea biltzen dituen blog bat egin dute, *Tolosaldeko euskararen semaforoa*. Leloa, berriz, *Eman argi berdea euskarari* da. Hauxe da helbidea: euskararensemaforoa.blogspot.com.

Orain askok ulertuko dute azken asteetan eskualdeko hainbat herritan semaforoetan azaldu ziren kartelak; «moskeo kanpaina» bat zen eta helburua lortu dute, jendearen arreta piztu baitute azken egunetan.

Blogaren bultzatzaileek Tolosaldean euskararen gainean dauden albisteak, hausnarketak, kezak, kanpainak... bildu nahi dituzte, eta toki bat eskaini Tolosaldean euskaraz arduratuta daudenei. Blogaren helburua, beraz, euskararen normalizazioari bidea irekitzea da, «Tolosaldean ere euskarari argi berdea eman eta oztoporik gabe aurrera jarrai dezan».

Blogaren argitaratuko diren al-

bisteak hiru mailatan sailkatuko dituzte, semafoeren koloreekin jolastuz: euskararentzat mesedegarriak badira, argi berdea izango dute; kaltegarriak badira, gorria; eta kontuz ibiltzekoak badira, berria, laranja.

Azkenean kartelen misterioa argitu da

Tolosa, Villabona, Zizurkil, Ikaztegieta eta eskualdeko beste toki batzuetako semaforoetan *Semafoeroak euskaraz* kartelak ikusi dira azken asteetan. Gainera, kartelak ez zeuden sinatuta.

Asko eta asko azalpen bila jarri eta hamaika azalpen ematen saiatu dira kartel hauei: semaforoetan entzunezko mezuak euskaraz jaritzea zuela helburua, autoeskoletan euskarazko materiala sustatzeko kanpainarekin zerikusia duela, matrikulak euskaratzeko kanpaina bat dela, trafiko seinaleetan euskaraz agertzea duela helburua... Batzuk Europako Legebiltzarrerako hauteskunde kanpainarekin lotzen ere saiatu ziren. Baina horietako inork ez du asmatu: hipotesiak okerrak ziren. *HITZAko Zurea da hitza* atalean ere irakurle batek honen inguruan galdetu zuen. Orain, azkenean, misterioak badu erantzuna.

Elkarretaratzea ETArek atentatua gaitzesteko

Tolosa » Gaur 12:00etan izango da Aranburu jauregiko atzealdean; ondorioz, txupinazoa 13:00etara atzeratu dute.

ERREDAKZIOA

Atzo Arrigorriagan (Bizkaia) ETAk eginiko azken atentatua gaitzesteko elkarretaratzea deitu ditu herritarrak Udalak, gaur 12:00etan. Elkarretaratzea Aranburu jauregiko atzealdean egingo dute. Atentatua Eduardo Puelles Garcia Espainiako Poliziaren Bizkaiko informazio inspektore burua hil zuen ETAk.

Hala, EUDEL-en deialdiarekin bat egin du Udalak eta Jokin Bildarratz alkateak eta Udaltzatzen herritarrei «arren eskatu» diete eta «animatzen» diete elkarretaratze honetan parte hartzera, «biktimarekiko elkartasun aktiboa erakusteko eta atentatua gaitzesteko».

Elkarretaratze honen ondorioz, San Joan jaien hasiera iragarri behar zuen txupinazoaren ordutegia atzeratu dute. 12:00etan bota behar zuten udaletxetik koadriletako hainbat ordezkariak eta Asier Izagirre mendizaleak; ordubate beranduago botako dute, 13:00etan. Gainontzeko egitaraua bere horretan mantenduko da.

Aurtengoan ere, Tourreko tropela Kanariar irletara!

Abian da tropela.net:
Tourra, sarean, euskaraz, eta sariekin...

Izen ematea doan.
hona emateko oper. larunbata, ostirala & 18.00etan

Laguntza: **hitza** hitza.net

San Juan jaia zorianisua opa dirakizueguff

Hirusta ilarpaindegia

hurre azaroa, 4 - 20090 Tolosa
Tel. 943 24 37 07 - 671 478 362

MATXINA

Etxekotresna elektrikoaren konponketa

Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

Laburrak

Intxurre Herriko taberna irekita San Joan jaietako

GIZARTEA ● San Joan jaietan Intxurre Herriko taberna irekita egongo da. Hain zuzen ere, gaurtik datorren asteazkenera arte, hilaren 24ra arte, izango da zabalik. 18:00etatik aurrera irekiko dituzte ateak.

Alde Zaharra Duintzeko Plana aurkeztuko dute

GIZARTEA ● Datorren ostiralean, hilaren 26an bilerara deitu ditu Udalak Alde Zaharreko bizilagunak. Bileran Udaleko Aretoko Nagusian izango da 11:00etan, eta Alde Zaharra Duintzeko Plana aurkezteko izango du helburu bezala. Plana gauzatzeko datu bilketa egingo dute aurkezpen honetan. Bileran Jon Aldazabal Alde Zaharra suspertzeko Batzordearen Lehendakaria izango da, dendarien elkarteetako kideak izango dira, eta horretaz gain, bertaraten diren Alde Zaharreko bizilagunak.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Ezinduentzako garraio baliabideak.** Ezinduentzako scooterra salgai. Urtebeteko garantia. 1.600 euro. Ezinduentzako gurgildun aukli elektronikoa salgai. 2.000 kilometrotako autonomia. 2.000 euro. Urtebeteko garantia. 605 771 607.

■ **Pabilioia.** Andoainean, 170 m²-ko pabilioia salgai. Harremanetarako deitu 608 39 90 90 telefono zenbakira.

ALOKAIRUAN

■ **Apartamentua.** Peñiscolan 7 pertsonentzako egokitutako apartamentua alokatzen da. Hondartza aurrean. Balkoia, igogailua, parkinga eta bi igerileku. Informazio gehiagorako: 696 602 527.

LANA

■ **Garbiketa zerbitzuak.** Bigi Garbitasunak. Garbiketa orokorrak, obra bukaerako garbiketak, bulgoak, etxeak, moketak eta alfombra. Deitu inongo konpromisorik gabe 638 944 604 (Gurutze) edo 695 708 271 (Belen) telefono zenbakietara.

BESTERIK

■ **Ciclos Bi-Onak.** Gure bezeroei jakinarazten diegu, ekainaren 30ean itxiko dela enpresa eta jaso gabe dituzten bizikleta eta motoak jasotzera pasatzeko epe horren barruan. Orduetgia (asteleheneratik ostiralera): 07:00-13:00 / 15:00-19:00.

■ **Pisukide bila.** Eskoriatzan pisua hartu dugun bi neska gara eta beste bi pisukideren bila gabiltza. Iraitetik ekainera. 685 76 03 17 edo 688 69 23 69.

Gerontologikoa hobetzea posible dela uste du Zahartzaro Duina plataformak

Gizartea » Udalak «interes eskasa erakutsi duenez», euren proposamenak jendaurrean azalduko dituzte hilaren 27an.

INIGO TERRADILLOS

Zahartzaro Duina plataformak gerontologiko berriaren proiektua «hobetu» dezaketzen proposamenak aurkeztuko ditu jendaurrean, «oraindik garaiz baikade aldaketak egiteko». Datorren larunbatean, hilaren 27an, egingo duten batzorde informatiboan emango dute dituzten lau proposamenen berri, 12:00etan gerontologiko zaharrear, hau da, Euskal Herria plazan.

Izan ere, Zahartzaro Duina plataformako kideek herenegun eginitako agerraldian salatu zuten, «zentro berria izango zenaren proiektua diseinatzeko orduan Tolosako Udalak ez zituen kontuan hartu adinekoekin zerikusia duten elkarteak eta herriko taldeak, esatekorik gehien daukatenak, hain justu». Hain zuzen ere, To.Pic zentroarekin konparatu zuten egoera: «Normala izango al litzateke Udalak txotxongiolen zentroa egiteko CIT-TEEkoekin (Tolosako Ekinbide Etxea) ez kontatzea? Ba, gure kasuan horrelako zerbait gertatu da».

«Benetako parte-hartzea»

Plataformako kideek diotenaren arabera, «Udalak bere burua derrigortuta ikusi duen arte ez du gurekin elkartu nahi izan». Hala, proiektua aurreratuta dagoela, baina oraindik ere aldaketak egin



Zahartzaro Duina plataformako kideek herenegun egin zuten agerraldia. I.T.

daitezkeela eta euren proposamenak entzuteko prest azaldu zela Udala azaldu zuten. «Baina, hori bai, gerontologikoko lan mahaian parte hartzeko aukera ez ziguten eman proiektuarekin lotura zuzen-

«Zentro berriaren lan mahaian parte hartzeko aukerarik ez digu eman Udalak»

na ez dugula argudiatuta; horrek argi utzi zigun zenbaterainokoa den Udal talde honen zintzotasuna».

Ido horretatik, Tolosako Udalak «behin eta berriro» parte-hartzearen mezuzabaltzen duela dio plataformak, «baina bultzatzen duen parte-hartzea teorikoa da, ez da benetakoa».

«Zerbitzua eta ez errentagarritasuna»

Hala, «Udal taldeak ikusitako interes eskasa eta gero» plataformako kideek egoitzaren proiektua «hobetuko» luketen proposamenak

«Proposamenak egoiliarren beharretan oinarritzen dira, ez errentagarritasunean»

publiko egitea erabaki dute. «Proposamen hauek egoiliarren eta haien senideen beharretan oinarritzen dira, eraikinaren itxurak eta zerbitzuaren errentagarritasunak bigarren maila batean gelditu behar dutela argi baitaukagu, eta gainera, hauek kontuan hartuz gero, ez litzateke ez kostu gehiago, ez eta denbora gehiagorik behar».

Batetik, egoitzaren kafetegia egoiliarren eta hauen familiakoena eta lagunien elkargune izatea ulertzen dutela diote, eta «ez negoziatzea egitea bilatzen duen zerbait bezala». Bestetik, egoitzan bertan adinekoen elkarteek lokalak izatea proposatzen dute, «ekintzak burutu ahal izateko, bestela egoiliarrei zuzenduriko zerbitzetan baino ez da bilakatuko».

Bestalde, egoitzaren kanpoaldeko estaliriko zonaldea erabilgarria izatea eskatzen dute: «handia izan dadila, beharrezkoa baita egoiliarrentzat, eta ez dugu zerbait estetikoa soilik izaterik nahi, aparkaleku aireatzeko helburua duena».

Azkenik herriaren parte-hartzea eskatzen dute egoitzaren inguruan Gobernu Batzarretan, eta «ez dadila soilik kudeatuko duen enpresaren esku egon».

Adinekoen Astea azken txanpan

GIZARTEA ● Iurreamendi Egoitzako Adinekoen Astea ari da pixkanaka amaierara iristen. Baina, dena den, badute egoiliarrek oraindik ere zertaz gozatua. Atzokoan, esaterako, mezaren ostean, galdera lehiaketan aritu ziren jokatzen, eta ondoren sari banaketa egin zuten irabazleen artean. Arratsalderako bingo berezia zuten zain kafetegian. Parte-hartzaileek arretaz jarraitu zuten jokoa, eta hainbatek diru mordoxka bat ere poltsikoratu ahal izan zuten. Gaur eta bihar ere izango dituzte ekitaldiak. Gaur 18:00etan egingo duten eukaristian 90 urte bete dituzten egoiliarak omenduko dituzte. Bihar, 13:00etan astea amaitzeko bazkari berezia izango da. i.t.



Berrobotik bi batel joango dira Tolosako bandera konkistatzera

Estropadak

Sanjoanetako batel txapelketan Berrobi A eta Berrobi Bat taldeak aruko dira arraunean.

ERREDAKZIOA

2009ko sanjoanetako estropaden kanporaketa bihar jokatu da Tolosako Oria ibaian, 12:00etatik aurrera. Ondoren, hilaren 24an, batel sailkatuen arteko finalak jokatu dira.

Aurtengo ezusteko politen artean Berrobik ateratu dituen bi batel aurkitzen dira: Berrobi A eta Berrobi Bat.

Arraunean jo eta su ia eguneroko

A taldean Julen Gorostiaga, Ekain Yarza, Gari Etxeberria eta Unai Elizasu irtingo dira arraunean. Patroi bezala berriz Fermin Caminos. Bat taldearekin Ibon Karrera, Iñigo Zabala, Jon Aldunzin eta Ander Garmendia irtingo dira, Jon Jauregi patroiarekin batera.

Berrobiren izenean ateratzen diren lehen urtea dutela aipatu dute arraunlariak, nahiz eta batzuk lehenago ere sanjoanetako batel txapelketan parte hartu duten.

Urrats hau nolatan eman duten galdetzean, TAKEN lana eskertu nahi izan dute: «Lehen hainbat berrobotar Gure Txokoa taldean irten ginen. Gero herri bezala atera edo ez hasi ginen eztabaidan. TAKEkin hitz egin genuen eta laguntza handia eman ziguten. Horri esker hasi ginen entrenatzen».

Arrauna ordea kirol gogorra da: «Ipurdiko minak, agujetak...» ongi ezagutzen dituzte berrobotarrek. Ez dabilta alferrik azken 3 hilabeteetan jo eta su: «Lehen bi hilabeteetan astean zehar ibiltzen ginen arraunean. Asteburuetan jai egin genuen. Azken hilabetean be-

rriz ia eguneroko ibiltzen gara. Tartean jai egunen bat hartzen dugu baina... bai, eguneroko».

Bi batelen helburuak

Bi batelek 10 lagun esan nahi dute. Berrobi herri txikia dela kontutan hartuta, galdera bistakoa da: «Komeri handiak pasa al dituzte batek osatzeko unean?» Erantzuna ordea uste baino errazagoa izan da: «Hasiera batean jendea animatzea kostatzen zitzaitzela uste genuen, baina azkenean uste baino errazago osatu ditugu batelak. Jende berria ausartzeaz gain oso ondo moldatu direla esan beharra dago. Talde bat lehen ere ibilitako arraunlariak osatu dugu eta beste berrieekin».

Entrenamenduetan ari zarenean, ohikoa da nahi gabe ere begiekin beste taldeenagana ihes egitea. Arerioa gertutik ezagutzeak abantaila hori izan ohi du: norbera bere

lekuan kokatzea: «Beste taldeak izaten dira erreferentzia sarritan. Batzuk gure aldean ondo ibiltzen dira. Jubeniletan bi batel oso onak daude. Berrobotik irtingo den talde bat ere oso ongi ibiltzen da. Bigarrena berriz oraindik hasieran dago, itxura ematea ez da gaizki egongo, gero ikusiko dugu zer ateratzen den».

Zer ateratzea gustatuko litzatekeen galdetuta, Berrobiko arraunlariak nahiko argi dute: «Iganetan hasiberriren helburua asteazkenearako sailkatzea da». Babesa etxean dute: «Aurreneko urtea izateko oso ondo ibiltzen dira eta ondo egiten dute arraun. Beste taldearen helburua berriz, igandean eta asteazkenean irabaztea da».

Bi talde eta bi maila. Beteronantz hurrengo galdera: Zein da gazteentzat zuen aholkua? «Lasai etor daitezela. Lan on bat egingo dutela pentsa dezatela, horrela

egingo baitute». «Gehienbat disfrutatu egin behar dute. Hemendik ez dugu bizirik aterako. Ondo pasa behar dute eta aurrera, hurrengo urtean berriz».

Eten ez den begikatea

Sanjoan hauek Berrobin lo zegoen arra berpiztu dute. Lehen ere arraunlariak egon izandu dira herri honetan eta belaunaldi berriak ongi dakite hori: «Nik ez dituzte ezagutzen baina garai batean arraunlari oso onak egon omen ziren Berrobin» aipatzen du batek. Besteak hori ohiko kontua dela gaineratzen dio lagun arraunlariari: «Beti-danik egon da zeezer herrian. Haiek arrauna utzi zutenean kontua bukatu egin zen. Baina gauza guztietan izaten den bezala, bazualdien ondoren berpizkundea etortzen da: orain gu hasi gara eta polita izango zen herriko gazte gehiago animatzea».

BIHAR SAILKAPEN ESTROPADA ETA HILAREN 24AN FINALA

2009ko sanjoanetako bi estropada ikusteko aukera egongo da Oria ibaian.

Lehen proba bihar jokatu da 12:00etatik aurrera. Mutiletan lehen sei batelak sailkatuko dira finalerako. Ibilbide luzean erlojuaren aurka ibiliko dira arraunlariak eta patroiak. Nesketan lau batel onenak sailkatuko dira azken txandarako.

Bigarren estropada, erabakiorra, hilaren 24an, asteazkenean jokatuko da. Proba hau ere 12:00etan hasiko da. Binaka irtingo dira neska eta mutilen batelak finalean. Sailkapen fasean denbora onena lortzen duenak 6.goa edukiko du ondoan, nesken kasuan 4.a. Bigarrenekoak 5.a, nesken kasuan hirugarrena eta 3.ak 4.a. laugarrena.

Finala denbora onena egiten duenak irabaziko du. Guztira 20 batelak eman dute 2009ko sanjoanetako estropadan izena. Hauek bi taldek bakarrik altxako dituzte zerura euren arraunak.



Berrobotik bi talde irtingo dira aurtengo sanjoanetako estropadan. Hasiberriek itxura ona eman nahi dute, beteroenok txapela ekarri nahi dute Berrobira. HITZA



Ikasturte amaierako joko eta poza

LEITZA Erleta Eskolako ikasle guztiak jaia ospatu zuten atzokoan. Arrazoia? Ikasturte amaiera. Izan ere, 3-12 urte bitarteko ikasleek atzo eduki zuten azken eskola ordua. Haur Hezkuntzakoak margo artean ibili ziren jolasean, aurpegiak ere marraztu zituztelarik. Urtero bezala jokuak eta Guraso Elkartearen kideek antolatutako hamaitakoa izan ziren protagonista eskolako azken egunean. Jokuen artean aulki jolasa, lokotx biltzea, txinga eroatea... aipatu behar dira. HITZA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aizondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Tolosa Kantari egitasmoak urtebete beteko du eta bazkaria egingo dute 27an 14:30ean, abestu ondoren, Abastos plazan. Txartelak salgai Xirimiri, Laier, Elurra eta Amarotzeko Ekaitz tabernetan 25 eurotan.

■ **Villabona.** Herria Kantuz ekimenekoen saioa, 12:00etan elkartzeko dira Berdura plazan.

Musika

■ **Villabona.** Samba Brasil taldearen kontzertua Baba tabernan 21:30ean.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Tibeteko argazki eta eskulangintza erakusketa 17:30etik 20:30era Kultur Etxean.

■ **Tolosa.** Kultur tailerretako ikasleen erakusketa Aranburun.

Jaiak

■ **Abaltzisketa.** Sanjoanak: 15:30ean VII. Mus Txapelketa Larraunari elkartean, 21:00etan sagardo dastaketa plazan eta ondoren dantzaldia Kupela taldearekin.

■ **Belauntza.** Sanjoanak: Gauean, herri afaria trikilariekin.

Kirola

■ **Villabona.** Abuztuaren 1etik 13ra Santiago Bidea bizikletaz kostatik, Tolosatik abiatuta, kiroldegietan lo eginez eta otorduak jatekeetan eginez. Izen-ematea, 687 568258 (Fernando) eta 664 129216 (Lus M.) telefono zenbakietan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



A Agurrak



Zorionak!
Xabi eta Olatz.

Egun zoriontsua igaro dezazuela.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

Ekialdeko dantzen sentsualitatea

TOLOSA • Samadhana eskolakoen emanaldia izan zen ikusgai atzokoan Leidor aretoan. Hain zuzen ere, ekialdeko dantzez gozatzeko aukera izan zuten Leidorrean bertaratu ziren ehunka lagunek. Ekialdeko dantzen barruan dauden estilo desberdinak ezagutzeko aukera izan zen, bai suarekin, bai bastoekin eta baita beloekin jolasten zutelarik. Samadhana eskola otsailean sortu zen, eta Maialen Urdanpileta da bertako zuzendaria. 13 urte zituenetik hasi zen dantza mota hauek ikasten. Eskolara Tolosatik ezetik, Villabona nahiz Berastegiko jendea joaten da, guztira, 40 emakume dituztelarik egun. Urdanpiletak dioenez, «urtebete inguru behar da gutxieneko oinarri bat hartzeko». i.t.



Zezen errekortarien 5. lehiaketa
1. Finalerdia

Ekainak 21 • Igandea • 18:00etan • Tolosako zezen plazan

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

saridunak

Antton Gabellanes (Irura)
Elena Eiguren (Tolosa)
Iolanda Barandiaran (Alegia)
Gema Irastorza (Abaltzisketa)
Arkaitz Lizartza (Ibarra)

